



# EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

80 zenbakia  
babestu  
ekonomikoki

**Ezker**  
Iraultzailearen  
aldizkaria



## Kapitalismoaren hondamendia

**nola aurre egin**  
**Sozialismoa ala basakeria**

**Urkullu patronalaren  
ofentsibaren bozeramaile**

**Langile borroka antolatuaz  
erantzun behar dugu**







**EAJren demagogia borrokatu behar da!  
Euren murrizketa eta pribatizazioek erailtzen gaituzte**

# Urkullu patronalaren ofentsibaren bozeramaile

Enpresaburuen irabaziak langile klasearen bizitzan gainetik daude. Hori da oligarkia eta beren aginduetara dauden gobernuak gordintasun osoz inposatzen duten lezioa. PSOE-Unidas Gobernua ez da salbuespena, nahiz eta xumeenen aldeko diskurtsoak eta “ezkutu soziala” behin eta berriz errepikatu. Hala erakusten duten hartzen dituzten neurriek; enpresaburu eta bankari handien irabaziak babestu besterik ez dute egiten.

Langile klasearen aurkako ofentsiba horretan, Eusko Jaurlaritza lehen lerroan kokatu da, CEOEkin batera. Pedro Sanchezek aste santuaren ondoren amaiera eman zion funtsezkoa ez zen jarduerako ekonomikoaren etenari, hain zuzen ere Koronabirusak hamasei mila hildakotik gora utzi dituenean, horietatik mila Euskal Herrian, eta kutsatzeak etengabe handitzen ari direnean. Baina nahiz eta jardun ekonomikoaren etena oso mugatua izan zen enpresaburu handien mesedetan, Urkullu bera izan zen lehena atera zena euskal patronalarekin batera oldarturik enpresen itxieraren aurka egitera.

Osasungintzako langileak duten gutzia ematen ari dira koronabirusari aurre egiteko, beren bizitzak arriskuan jarritzak babes, kontrol eta bitarteko faltagatik, 20 langile hil dira aurreko lantokietan, eta

Zaldibarko zabortegek luizian desagertutako bi langileak desagerturik jarraitzen dute.

Egoera honetan, euskal eskuinaren lehentasun bakarra “koma ekonomikoa saihestea” izan da. Erkorekak komunikabideen aurrean Urkulluren eta Arantxa Tapiaen kudeaketa goraiatu zuen, espainiar Gobernua zentzuz jokatzera eta “akatsa zuzentzera” eraman zutelako, lantokien erabateko itxiera eragotziz. Bestalde, Chiviteren Gobernuak ere eskatu dio gobernu zentralari Nafarroa lehen proba guinea izan dadila normaltasunera itzultzeko planaren barnean.

Confedebaskek argi utzi du lehen unetik nola aurre egin nahi dion krisi horri: “Lan malgutasuneko ezohiko neurriak beharrezkoak izango dira, eta baita izatera ekonomiko eta fiskalekoak ere, diru sarriaren jaitsierari eta jarduerari xiteari aurre egiteko”. EAJren zeregina, beti bezala, mandatu hau betetzea da, eta krisia langile klaseari ordainaraztea. Apirila He-go Euskal Herrian 26.600 Aldi Baterako Erregulazio Espedienteekin (ERTE) hasi zen, 166.000 langileri eraginez; langabeziak hilabete batean inoiz izan den igorarik handiena jasan du EAEn, ia 11 mila gehiago, eta datorren hilean kopurua asko haziko dela espero da.

## Batasun nazionalaren iruzurra

Nazionalismo espainolistaren diskurtsoa lau haizetara zabalduz, PSOE-UP gobernuak aplikatutako neurriak —CCOO eta UGT sindikatuek gogo handiz txalotuak— oso konkretuak izan dira: bankaren eta enpresaburu handien esku jarri dituzte 100.000 milioi euro, espainiar Estatuko BPGaren %10aren baliokidea, finantza-sektorearen beste erreskate publiko bat egiteko, 2008koa baino handiagoa. Enpresa handien neurri diseinatutako ERTE uholdea zabaldu dute, orain arte bildu dituzten irabazietatik euro bakar bat ere ez ordaintzeko. Osasun krisiak irauten duen bitartean, enpresariak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten ordainketa kendu dute...

Unidos Podemosen ahalegin berezia egin du politika horiek zuzitzeko, oligarkia kapitalistaren interesak babesteko, langileei zuzendutako soberakin ziztrinen publikizitatea eginez. Zertan datza hainbeste aipatzen duten “ezkutu soziala”? Bertan behera uzten ez diren eta ordaintzen jarraitu beharko diren alokairuei aurre egiteko mikrokredituak, 440 euroko sorospenak martxoaren 15aren ondoren aldi baterako kontratuak iraungi zaizkien langabeentzat, etxegabeteen sei hilabeteko atzerapenak, baldin eta bizitokiko alternatibarik ez badago, argia, ura eta gasa mozteko debekua alarma-egoerak irauten duen bitartean.

Koalizio gobernu honek astintzen duen Espainiako batasun nazionalaren bandera iruzur ikaragarria da langile klasearentzat eta eskuina eta muturreko eskuina elikatu besterik ez du egiten. Baina modu berean, PDCat eskuin katalanistak eta EAJren euskal eskuinak erabiltzen duten diskurtsoa

tranpa berbera da. Euren gobernuak lehen postuan egon dira osasungintzari murrizketak egiten eta langile klasearen aurkako eraso guztiak babesten eta aplikatzen; ez eskumen faltagatik eta beste politika batzuk egiteko aukera faltagatik, euskal eta kataluniar burgesiaren interesak zaintzeko ekimen propioak bultzatuta baizik.

Zalantzarik gabe, espainiar Estatuan krisi kapitalista gogortu izanak nazio zapalduen eskubide demokratikoen aurkako neurri zentralista eta autoritarioak indartuko ditu. Ikusi dugu 78ko erregimena Kataluniako herria kolpatzen. Baina honen aurka egiteak ez du zerikusirik euskal herritar guztiok ontzit berean gaudela dioen EAJren diskurtsoarekin. 78ko erregimenaren erasoaldia langile klasearen aurkakoa da bere osotasunean, baita Katalunian eta Euskal Herrian ere eta noski, euskal eskuinaren babes sutsua izango du.

## Moncloako itunak berreskuratu?

Bere hitzaldi guztietan Pedro Sanchezek tonu patriotikora jo du. Baina apirilaren 4an salto bat eman du Moncloako Itun berriak eskatu dituenean, Vox, PP, Cs eta parlamentuko arku osoarekin batera, pandemia igaro ondoren egoera sozial leherkor bati aurre egin ahal izateko. EAJk bere ahotsa batu du dagoeneko abesbatza horretara, Madrilgo gobernuari egingadako kritiken tonua jaitsiz.

Moncloako Itunen bertsio berri bat berreskuratuz, langileak kate motzean lotu nahi dituzte. Akordio horiekin Felipe Gonzalezen PSOE, Santiago Carrilloren PCE eta UGT eta CCOO sindikatuak buruak traizio historikoa egin zuten, besteak beste honakoa onartuz: estatu frankistaren aparatua bere horretan mantentzea eta diktadurako krimenak zigorrak gabe geratzea, Juan Carlos I.aren monarkia sakratu egitea, hamarkadetan lizunki aberastu ziren kapitalistek beren dirutzak ondo babestea eta boterearen bitartekoak kontrolatzen jarraitzen baimentzea... Gainera erosteko ahalmenaren eta lan-eskubideen galera ikaragarria ekarri zuten, prekaritate handiagoa, gizarte-prestazioak murriztea eta greba eskubidea mugatzea. Hori izan ziren 1977ko Moncloako Itunak, eta haien errepikapenak helburu bera du: altxamendu soziala eragozteko, 78ko erregimen kapitalista indartuz.

## Beharrezkoa da alternatiba iraultzailea defendatzea

Koronabirusak eragindako konfinamendu egoera historiako krisi kapitalistarik handienetako baten lehen etapa baino ez da, eta inflexio puntua markatuko du klase borrokan, baita Euskal Herrian ere.

Langile klasea jasaten ari garen egungo erasoaldia ez da konfinamenduarikin amaituko. Horregatik da beharrezkoa erantzuna lehenbailehen antolatzea. Gaurko Aldi Baterako Erregulazio Espedienteak biharko egunean EREak, kaleratzeak, soldata murrizketak eta abar bihurtuko dira. Langile klaseari beste krisi bat ordainarazi nahi diote, hamarkada bat baino gehiagoan gure lan baldintzak masiboki prekarizatu dituztenean. Horregatik da beharrezkoa erantzuna eta mobilizazioa lehenbailehen antolatzea.

Ezker Abertzaleak eta gutun sozialean bildutako sindikatuek aurrerapauso bat eman behar dute zentzu horretan. Gaitz txikiaren politika aplikatzea beste irtenbiderik ez dagoela onartzea da, hau da, murrizketak, kaleratzeak eta erasoaldi guttia onartzea. Gehiengo sindikalak irmoki

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!  
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

ezkeriraultzailea@gmail.com • Tel.: 685 708 281

Twitter: @Ezklraultzailea • Facebook: Euskal Herria Sozialista

**LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!**

Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.





kontra agertu behar du. Noski badagoela alternatiba! Gehingoaren osasunak eta eskubideek patronalaren irabazien gainetik egon behar dute, baina hori soilik lortuko dugu eraso bakoitzaren aurrean enpresaz enpresa langile guztiak antolatuta eta borrokarako zutik jartzen baditugu.

Patronalaren eta EAJren ofentsiba honen erdian, EH Bilduk neurri zuzentzaile batzuen proposamena aurkeztu du, politika sozialagoak eskatuz, baina funtsean kapital handiari oparituriko dirutzak eta osasun pribatuaren negozioa bere horretan utziz. Bere proposametak hartzen du diru-sarreak bermatzeko sisteman sartzeko baldintzak malgutzea, enpresa txiki eta autonomoei laguntzak ematea, Osakidetzan eta erresidentzietan test masiboak eta babes ekipoak bermatzea, etab. Lanerako itzuleraren aurka agertu da arduragabekeria dela esanez, ez dagoelako garantiarik eta arriskuan jartzen duelako gure osasuna eta ekonomia. Era berean, Arnaldo Otegi Radio Popularren egindako elkarrizketa batean adierazi zuen: “gu ere interesaturik gaude enpresek lehiakorrak izatean”, eta “bermerik badago, jarduerari eutsi behar zaio, baina bermea badago”. Zer esan nahi du enpresak lehiakor mantentzea merkatu kapitalistan? Hori izan da enpresariaren argumentu nagusia langileen eskubideak erasotzeko. Bestalde, EAJri aurpegiratzen zion “ez duela zentzurik hemen erakunde, alderdi, patronal eta sindikatuen artean krisi honetatik nola atera behar dugun hitz egiteko foru bati uko egiteak eta gero Moncloako Itunetan

egoteak. Benetan industria eta ekonomia bereizia baldin badaukagu, hemen erabaki beharko dugu neurririk onenak zeintzuk diren, lurraldea ezagutzen dugunok. Tamalgarria iruditzen zaigu Aberri Egun bateratua ospatzetik EAJ desmarkatzea”.

Planteamendu horiek, eta bereziki langile klasearentzat egoera hain larria denean, izugarritzko akatsa dira. Lehenbait lehen amaitu behar dena EAJko eskuinari eskua luzatzeko estrategia da. Eta benetako alternatiba bat defendatu behar da, kapitalista handiak boteretik botatzeko, eta ez haien agindu eta oniritzien baitan legeak egiteko.

Logika kapitalistak banku handien eta enpresen diktadura inposatzen du gizarte osoan. Ezinezkoa da logika hori onartuz sistema honek eragiten duen basakeria eta miseriari aurre egitea. Ezinbestekoa da aldarrikatzea kapitalista handien boterearekin amaitu behar dela eta ekonomia langile klasearen kontrol zuzen eta demokratikoan jarri behar dela, bai parlamentuetan, bai borroka sindikalean.

Beharrezkoa da Euskal Herrian langile klasearen eta gazteriaren borroka bateratzea, lantokietan gertatzen diren eraso guztiei aurre egiteko, lanera itzultzearen eta ERTEen inposaketaren aurrean, beharrezkoa bada bizitza babesteko grebak deituz, klaseko elkartasuna antolatuz, erresistentzia kutzak, borrokak koordinatuz eta batuz... Beharrezkoa da ezker iraultzaile bat eraikitzea.

1. Bankaren eta monopolio handien nazionalizazioa langileen kontrol demokratikoaren pean, jendearen eskubideak eta haien bizitzak gainetik jarriko dituen ekoizpen plan bat ezartzeko.
2. Osasun publikoaren defentsan. Osasun-arloko 20.000 profesional berehala kontratatzea (medikuak, erizainak, ikertzaileak, teknikariak, laguntza-langileak, anbulantziak...). Ospitaleko instalazio publiko guztiak irekitzea, ZTGak (UVI) indartzea eta zabaltzea, eta beharrezko material medikoa eta kirurgikoa erostea. Material medikoaren eta osasun pribatuaren ekoizpen-sektore guztiak nazionalizatzea. Farmazia sektorearen nazionalizazioa, koronabirusari eta gainerako gaixotasunei aurre egiteko beharrezkoak diren botika guztien doakotasuna.
3. Pandemiaren aurka borrokatzeko funtsezkoa ez den ekoizpen-jarduera guztia berehala geldiaraztea. Legez bermatzea funtsezkoak ez diren fabriketako eta enpresetako langile guztiak etxean egon ahal izango direla ordaindutako baimenekin, beren enplegu guztiak errespetatuak izango direla eta ez dela lan-eskubiderik galduko. Funtsezko enpresetako langileentzat, beharrezko segurtasun- eta babes-neurri guztiak. Betetzen ez dituzten enpresaburuei zigor ekonomiko oso zorrotzak ezartzea.
4. Ekoizpena langileen kontrolpean jartzea. Sektore industrial guztietan langile batzordeak sortzea, demokratikoki asanbladetan hautatuak, ekoizpena birmoldatzeko eta berehala pandemiari aurre egiteko behar den material mediko guztia fabrikatzeko: babes ekipoak, arnagailuak, maskarak, mantalak...
5. Kaleratzerik, ERTerik edo enplegu-erregulazioko espedienterik ez koronabirusaren eraginez. Soldata murrizketarik ez. Enpresaburuek urte hauetan pilatutako etekin guztien beren zatia jar dezatela! Itzul dadila patronalen eta bankuen erreskateen dirua!
6. Ixten den fabrika, langileen kontrolpean nazionalizatutako fabrika. Langabezia sorospen mugagabea, lanpostu bat aurkitu arte 1.200 eurokoa hilean.
7. Legez murriztea familia langileen eguneroko bizitzarako funtsezkoak diren produktuen prezioak eta espekulazioaren jazarpen sendoa. Aski da. Supermerkatu kate handiak eta elikagai sektoreko multinazionalak izugarri aberasten ari dira. Horien nazionalizazioa langileen eta erabiltzaileen kontrol demokratikoan.
8. Guztiontzako etxebizitza duin baten alde. Alokairuko etxebizitzaren jabe handien, bankuen eta funts putreen nahitaezko desjabetzea, eta etxebizitza publiko unibertsalaren sistema bat sortzea, alokairu sozial eskuragarriekin. Kaleratze guztiak legez baliogabetzea eta alokairuak, argindarra, gasa, ura, berogailua eta telekomunikazioak ordaintzetik salbuestea kaleratutako eta zailtasun ekonomikoak dituzten langile guztientzat, zerbitzu horiei guztiei eutsiz.
9. Etorkinen eta errefuxiatuen eskubide ekonomiko, sozial eta politikoen defentsa. Lege arrazista guztiak indargabetzea eta kontzentrazio eta barneratze esparruak eraistea. Milaka milioi euroko mobilizazioa, haien bizitzak salbatzeko.
10. Adierazpen, manifestazio eta antolaketa askatasunari inolako murrizketarik ez. Kanpora estatu poliziala eta bizitza sozialaren militarizazioa! Faxismoari eta eskuin muturreko erakundeei aurre egitea langile klasearen eta gazteriaren borroka masibo eta antolatuarekin. Haien inpunitearen aurka, eta Estatuaren aparatuen aldetik jasotzen duten babesaren aurka.
11. Gerra inperialistekin amaitu! Monopolioek eta Nazioarteko Diru Funtsak ezarritako kanpo-zor guztia berehala kitatzea.
12. Zapaldutako nazio guztien autodeterminazio eskubidearen alde.
13. Iraultza Sozialistaren eta Munduko Federazio Sozialistaren alde.





# Kapitalismoaren hondamendia nola aurre egin

## EDITORIALA

*Sozialismoaren baldintza historikoak oraindik ere ongi "helduta" ez daudela dioten hitzontzikeriak ezjakintasunaren edo asmo txarren ondorio dira. Iraultza proletarioaren baldintza objektiboak helduta ez ezik, usteltzen hasi dira. Hurrengo garai historikoan iraultza sozialista egiten ez bada, giza zibilizazio osoa hondamendi batek birrindua izateko mehatxupean geratuko da. Proletalgoaren ordua da, hau da, batez ere bere abangoardia iraultzailearena. Gizateriaren krisi historikoa zuzendaritza iraultzailearen krisi laburtzen da.*

Leon Trotsky, *Trantsizio programa*

Koronabirusaren pandemia beharra adierazten duen istripua bihurtu da. Azken hamarkadan eratzen joan diren kontraesan ekonomiko, sozial eta politiko guztiak bortizki lehertu dira, gizateria bidegurutze historiko baten aurrean jarritz. Dozenaka mila errugaberen aurka egindako sarraskia, datozen hilabeteetan biderkatuko dena, hasiera baino ez da. Ekoizpen-jardueraren eta merkataritzaren gelditze orokorrak, osasun-krisiarekin batera gertatzen ari diren kaleratze masiboak eta sufrimendu kolektiboak ondorio larriak izango dituzte etorkizun hurbilean. Basakeria ez da birusa, basakeria kapitalismoa da.

### Klase arteko gerra

Gobernu kapitalistak eta beren komunikabideek gerraren adibidea erabiltzen dute egoera deskribatzeko. Ez da kasualitatea: gizartean izpiritu chauvinista eta nazionalista hauspotzeko propaganda higuin-garria bihurtu da.

Gerra bateko lehen biktima egia izan ohi da. Ez dute esaten gerra hori duela hamarkadak deklaratu zutela botere kapitalistek, eskubide eta zerbitzu sozialak suntsitu zituela, desberdintasun ikaragarria eragin zuela, ingurumena maila jasangaitzetara eramane zuela, eta errautsetan utzi zituela herrialde batzuk osorik. Gerra onen gainean astindu ditu hegialak koronabirusak.

Osasungintzako milaka eta milaka langile erailketa masibo hori salatzen ari dira, osasun sistema publikoen kolapso egoera erdian, euren bizitzak arriskatzeko ari diren bitartean. Latinoamerikan, Afrikan, Ekialde Hurbilean eta beste toki askotan, egoera are jasangaitzagoa da eta ondorio are izugarriagoak izango ditu.

Burgesiak eta soldatapean dituen politikariek —aldaera ezberdinetako sozialdemokraziak eta sindikatueto burokraziak barne— "soldadu" gisa borrokatze-ara dei egiten digute eta sutuki altxatzen dute batasun nazionalaren aldarria. Baina guk jartzen ditugu hildakoak eta gu gara langabeziaren eta miseriaren zartada jasaten dugunak.

Sistemak "batasun nazionalaren" zementua behar du. Zein helbururekin? Gerra hau benetan pairatzen ari garenon kon-



tzientzia itotzeko eta makurtu gaitezen lortzeko. Baina aurreko aldian munduan zehar klase arteko borroka gogorrak, altxamenduak eta iraultzak bizi izan ditugu: Txile, Ekuador, Bolivia, Honduras, Sudan, Aljeria, Hong Kong, Frantziako Estatu greba orokorrak, emakume langilearen masa mobilizazioak, mundu mailako gazteen mugimendua klima aldaketaren aurka, errepublikaren aldeko Kataluniako herriaren altxamendua... Horiek eta hainbat gehiagok aro berri bat iragartzen dute eta eskola handia bihurtu dira.

### Gainbehera ekonomikoak borroka inter-imperialista areagotuko du

Ekonomiaren egungo kolapsoaren maila, gerra suntsitzaile batekin bakarrik alderatu daiteke.

Nazioarteko Finantza Institutuaren arabera, AEBetako eta EBko ekonomiak %10 eta %18 jaitsiko dira urteko lehen sei hilekoan, hurrenez hurren. Erreserba Federalak urte honetan AEBetako Barne Produktu Gordina %50 hondoratzea espero du. Depresio Handiaren unerik txarrean, 1929 eta 1933 artean, BPGa %30 erori zen. Iturri horrek berak dio langabeziak 47 milioiraino egin dezakeela gora, %32ko langabezia tasara iritsiz, eta 67 milioi iparramerikarrek kaleratuak izateko arrisku handia dutela baieztatzen du.

Askok esan dute, baita "marxista" direla dioten batzuk ere, Txinako ekonomia kondentatua dagoela eta kolpe latza jasoko duela ziurtatzen dute. Mundu merkatuaren atzerakadak noski negatiboki eragingo dio bere ekoizpen aparatuan, baina horrelako baieztapenak egiten direnean beti neurtu behar da Txina bere lehiakideekin konparatuz.

Txinako kapitalismok, gorantz doan sui generis estatu-kapitalismoa da. Bere estatu-aparatuaren eskuetan kontzentratu dit-

zake finantza eta ekoizpen arloan dituen baliabide zabalak eta baino bizkorrago bete ditzake behar estrategikoak beste batzuek. Horrek abantaila nabarmena ematen dio AEBen edo EBren aurrean lehia-tzeko. Krisi honetan hori agerian geratzen ari da, eta ez soilik osasun arloan.

Trumpek AEBetako ehunka mila herritar sakrifikatzeko eta ekoizpena lehenbailehen martxan jartzeko egindako aginduak horri erantzuten dio. Etxe Zurian oso ondo dakite Txinak beteko duela orain libre utziko duten espazioa. Hala eta guztiz ere, iparramerikar xumeak bost axola zaizkion "abertzale" ustel honek apur bat atzera egin behar izan du, bere aholkulariek ikusi baitute hondamendiaren larritasunak beste agertoki batzuk ere eragin ditzakeela, AEBko mugen barruan eztan-da sozialetatik hasita.

Txina erreferente bihurtuko da nazio kapitalista txikiagoentzat, bere lehiakideek uzten dituzten hutsuneak beteko ditu eta bere eragina hazi egingo da datozen urte eta hilabeteetan. Italiari eman dion laguntzarekin gertatutakoak, edo Estatu espainiarreko Gobernuak bere osasun merkatuan egindako erosketa desesperatuek, Afrikatik eta Latinoamerikatik Beijingera egin dizkieten laguntza eskaerek ere, Asiako erraldoiaren papera indartu baino ez dute egingo berehalako aldian, nazioarteko harremanetan aldaketa sakinak eraginez.

Mundu mailako mekanismo ekonomikoak oreka galdu ez ezik, matxuratu egin da, sistemak pairatzen duen agonia azaeratu.

### Estatu kapitalistaren erreskatea... kapitalistentzat

Mendebaldeko potentziek 2008ko krisiari erantzun zioten langile klasearen bizkar gainean jarritz finantza sistemaren erreska-

te publikoa. Alde batetik, murrizketa basatien uholdea, kaleratze masiboak, prekaritatea, etxegabetzeak eta pobretzea, eta bestetik, zero intereseko kredituen barra libre, eta banku zentralak zor pribatua masiboki erostea, finantza espekulatzailen, bankuen eta enpresa handien poltsikoak ondo betez.

Sistemaren kontraesan larrietako bat bera ere ez zen konpondu, guztiz kontrakoa. Inbertsio produktiboa erori egin zen, baina burbuila espekulatiboa geroz eta handiagoa bilakatu da, eta monopolioen kapital kontzentrazioa indartu egin da: "Kapital finantzarioa —esan zuen Leninek— hain indar garrantzitsua da, hain erabakigarria dela esan daiteke harreman ekonomiko eta nazioarteko harreman guztietan, ezen menderatzeko gai baita, eta benetan menderatzen ditu, baita independentzia osoena duten Estatuak ere..."

Datuek agerian uzten dute benetako iruzurra dela "aurreko krisiaren lezioak ikasi" direla. Zor globala (publikoa zein pribatua) 253,6 bilioi dolarreko errekorra iritsi zen 2019an, munduko BPGaren %322.

2008an aurrekontu publikotik bi bilioi dolar baino gehiagorekin erreskatatu zituzten Ipar Amerikako banku handiek gaur egun %43 gordailu gehiago dituzte, %84 aktibo gehiago eta krisiaren aurretik zuten diruaren hirukoitza. McKinsey Global Institute erakundearen arabera, munduan lortzen diren enpresa-mozkin guztien %80 Burtsan kotizatzen diren taldeen %10ak sortzen ditu.

Horixe da gizateriak bere premiarik larrienak konpontzeko duen benetako oztopoa. Soldatapeko lanak sortzen duen aberastasun erraldoiak finantza espekulatzailen gutxiengo honen eskuetan jarraitzen duen bitartean, euren diktadura ankerra inposatzeko bide hori duten bitartean, ez dago irtenbiderik.





## Kapitalismoaren hondamendia nola aurre egin

Marxek azaldu zuen bezala, Gobernuak klase agintariaren interesak zaintzen dituen batzorde exekutiboa da. Mendealdeko gobernuak eta banku zentralak onartutako talka-programak 6 bilioi dolarretik gorakoak dira dagoeneko (munduko BPGaren %7 inguru). Multinazional handiei solbentzia ematera eta nazioarteko bankuak berriro salbatzera zuzendutako likidezia erraldoia da.

Mario Draghi Europako Banku Zentraleko zuzendari ohiak gordintasun osoz azaldu du asmoa Financial Times egunkariak argitaratutako artikulu batean: "(...) erantzunak zor publikoaren gorakada nabarmena eragin behar du. Sektore pribatuak jasandako diru sarreraren galera, eta hutsune hori betetzeko sortutako edozein zor, guztiz edo partzialki, Gobernuen balantzeetan xurgatu behar da".

Estatu kapitalistak enpresak, finantza-kapitala eta espekulatzailak salbatu behar ditu. Zein lezio bikaina erreformista guztientzat, zahar eta berrientzat, Estatua gorapatzen dutenean, klase bat bestearen gainetik menderatzeko tresna izango ez balitz bezala. Estatuaren teoria marxistaren aldarrikapen bikaina da, burgesiaren bozeramaile handi baten ahotan. Leninen hitzak gogora ekartzen ditu: "(...) Hemen ikusten dugu nola, finantza-kapitalaren aroan, Estatuaren monopolioak eta monopolio pribatuak elkar josten diren osotasun bakar bat eratuz, eta nola, errealtatean, monopolista handiek mundua banatzeko borroka inperialistaren kate beraren zati ezberdinak baino ez diren".\*

### Inoiz baino banatuago. 2.0 Neoliberalismoa

Burgesia nazional bakoitza bere monopolioak jo eta su defendatzeko prestatzen ari da depresioaren baitan gauzatzen den gatazka interinperialistan. Indar objektibo horiek dira Europako Batasunaren leherketaren atzean daudenak. Hegoaldeko gobernuak, Italiak eta Espainiako Estatuak gidatuta, Merkeli eskua botatzeko eta krisi honen zati bat bere gain hartzea eskatzen dioten bitartean, Alemaniako burgesiak uko egiten dio hondamenaren kostuak elkarbanatzeari.

Alemaniako eta Herbehereetako burgesiek, eurobonuak erabat arbuiatzeaz gain, kutsaduratik babesteko eta beren industria nazionalak kosta ahala kosta sendotzeko neurri guztiak hartuko dituzte. Merkelek hegoaldeko herrialde guztiei esan die Europako Egonkortasun Mekanismoaren (MEDE) maileguetara jo dezaketela, Greziak bere garaian egin zuen bezala. Eta orduan bezala, ordaindu beharreko baldintza gogorren truke emango da, murrizketa sozial gehiago exijituz.

Europak eztanda egin du. Europar Batasunaren proiektua, ezagutu dugun moduan behintzat, amaituta dago. Brexitaren ondoren, eta depresio luze baten aurrean, 2014ko euroaren krisian nekez eutsi ziren indar zentrifugoak (Greziako herria zapaldu eta austeritatea zabaltzearen kontura) gero eta kontrolaezinagoak bihurtuko dira.

Kontinente guztietan nazionalismo ekonomikora itzulera prestatzen ari da, arantzel politikak indartuz, txanponen debaluazio lehiakorak eginez, barne merkatuak kanpo erasoetatik babesteko neurri protekzionistak. Mundu mailako poten-



tzien gutxieneko koordinaziorik ez egozteak kapitalismoaren izaera erabat atzerakoaia berresten du.

### Iraultza sozialistarako programa eta alderdi bat

1929ko crack-aren ondoren, kapitalismoaren agoniakzko krisiak iraultza sozialistaren porrota ekarri zuen Europar faxismoa eta, azkenik, mundu gerra odoltsu bat. Uneotan horrelako gerra baten aukera baztertuta dago. Armategi nuklearra potentzia inperialista handien eskutik egonda, elkarren arteko suntsipen ziurra izango litzateke. Baina horrek ez du esan nahi tokian tokiko gerra gehiago ez direnik egingo, milioika hildako eta errefuxiatu eraginez eta Sirian, Iraken edo Afganistanen ikusi dugun bezalako suntsiketa ikaragarriak eraginez.

Depresioak parlamentarismo burgesaren, sozialdemokraziaren eta alderdi kontserbadore tradizionalen deslegitimazioa areagotuko du, polarizazio sozial eta politikoa indartuko du, klase menderatzailea are gehiago zatituko du eta gobernu askotan joera autoritarioak gailenduko ditu. Urte hauetan erdi mailako geruzen egonkortasuna galdu dela ikusi dugu, ezkerreara eta eskuinera gogor oszilatzen dutelarik. Egoera berriak joera hori sakondu baino ez du egingo. Ultraeskuinaren gorakada benetako mehatxua da, eta are gehiago izango da, baita estatu poliziala ere.

Ezker erreformista berriaren alderdiek, Podemosek, Syrizak, Bloco de Esquerdak, Die Linkek eta antzeko beste batzuek, marxismo iraultzailearen programa alde batera utzi dute eta ideia erradikal txiki burgesen nahaspilarekin ordezkatu dute, beti toki berean amaitzen dena: kapitalismoa onbera bihurtzea. Baina esperientzia praktikoak erakutsi du hori utopia erreakzionarioena dela.

Gauean dugun hondamendiari aurre egiteko modu bakarra langile klaseak, zapalduen buru, boterea hartzea da, bankuak, monopolioak eta lurra nazionalizatzea kontrol demokratikoan. Gizartea oinarri sozialista eta demokratikoen gainean antolatuz bakarrik eragotzi ahal izango du gu kapitalismoak garamatzen amildegia.

Klase zapaldu baten ordezkartza parlamentarioa bere benetako indarraren oso

azpitik dago. Iraultza baten baldintza klasikoak, erreformistek iraungitza eman zituztenak, agerian geratu ziren 2019an Latinoamerikan, Asian, Afrikan eta Europan eman ziren masa-mugimenduetan, altxamenduetan eta matxinadetan: klase agintariko zatiketak, masen determinazioa borrokaren amaieraraino iristeko, erdi mailako geruzen laguntza edo neutraltasuna... Baina guztietan falta izan zen baldintza onuragarri horiek errotzeko faktorerik erabakigarriena: alderdi iraultzaile bat, marxismoaren programarekin armaturik eta masen artean influentzia izango duena.


Eginkizuna konkretua da: aurrez aurre ditugun gertakari latzen baitan, milioika pertsonen haserre eta atsekabea eraldatzea iraultza sozialistaren programari babes kontziente bat emateko. Langile klasea bere indarretan bakarrik fida

daiteke jabetza pribatuaren eta estatu nazionalaren erregimen ustelarekin amaitzeko. Eta konfiantza hori eskuratzeko, ikuspegi eta programa argi bat izan behar du, soilik zuzendaritza irmo eta auserdak eman dezakeena.

Zeregin horri arrakastaz aurrera eramateko gai izango den alderdi iraultzaile bat eraiki beharra daukagu: desjabetzaileak behin betiko desjabetuko izango dira, eta soldatapeko lanak sortutako aberastasuna benetako justizia sozialaren esku jarriko dira. Sozialismoaren garaipena gizateriaren garaipena izango da.

### Batu zaitetz Ezker Iraultzaile!

\* V. I. Lenin, *El imperialismo, fase superior del capitalismo*, Fundación Federico Engels. Madrid 2016, p. 72.





# Osakidetzako langileak antolatzen hasi dira

**Manifestua: Langileak elkaturik birusaren eta osasunaren pribatizazioaren aurka**

Osakidetzako langile guztiei:

Datozen urteetan ondorio historikoak izango dituen uneak bizitzen ari gara. Koronabirusaren krisia inflexio puntu erradikala izaten ari da. Hasteko, milaka gaixoren heriotza eragiten ari da munduan, eta horietako gehien-gehienak osasun baliabide faltagatik gertatuko dira. Hala ere, gainean dugu milaka kaleratze, enpresen itxiera eta ekonomiaren depresio globalaren mehatxua.

Osasun publikoa kolapsatua dago. Osasun-sistemako langileok, bai Euskadin, bai gainerako lurraldeetan, gure osasunarentzat eta osasun publikoarentzat benetan arriskutsuak diren baldintza prekarioetan lan egitera joaten ari gara. Osasun-alerta aktibatu eta hainbat egunetara, askok oraindik ez daukagu eskuzorrorrik, maskararik edo xaboi desinfektatzailek kutsaduratik babesteko. Horri telefono bidezko arretaren kolapsoa gehitu behar zaio, pazienteekin komunikatzeko gure telefono pertsonalak erabiltzera behartzen gaituztelarik.

Egoera horrek guztiak agerian uzten du kalitatezko osasun-sistema publikoaren sare bakarra behar dugula. Baina osasun publikoari egindako murrizketek eta pribatuaren finantziakzioa hedatzearen ondorioek emaitza benetan lazgarria utzi dute. PNV-PSEren Eusko Jaurlaritzaren politikak, Gobernu zentralak bezala, hamarkadatan zehar osasunaren negozioa sustatu dute. Orain, pandemiarekin inoiz baino nabarmenago geratzen da politika horiek ez dituztela bermatzen oinarrian ere gure osasuna eta bizitzak. Estatu mailan, modu lotsagarrian, presidenteak krisi honekin

norbanakoaren erantzukizuna eskatzen du kutsadurak saihesteko, baina ez ditu oinarriko bitartekoak jartzen diagnostikoak garai eta eraginkor egiteko ere. Bestalde, Estatuaren onuradun nagusiei, bankari eta enpresaburu handiei, borondate ona eskatzen die, hartu diren neurriei esker kaleratuko dituzten milaka langileak berriz ere kontrata ditzaten. Era berean, krisiak irauten duen bitartean, enpresek ez dituztela zertan gizarte segurantzako kuotak ordaindu dekretatu da. Agintari sindikalek, estatu mailan, baina baita euskal gehien-go sindikalak ere, patronalaren xantairen aurka egin behar dute, aurrekaririk gabeko murrizketa eta familia langileen bi-

zi-baldintza oinarrikoenei eraso egiteko atea irekitzen ari baitira. Osasun arloan lan egiten dugunok ondo dakigu horrek zer dakarren: elikadura okerragoa, higie-ne okerragoa, hedapen biriko handiagoa.

Astelehenean bertan, garraio publikoaren maiztasuna murriztu egin zen, eta horrek lanera joatera behartuta zeuden pertsonen pilaketa ekarri zuen, eta ziurrenik pandemia zabaltzea ere bai. Hurrengo egunean presio sozialaren ondorioz atzera egin behar izan zuten, eta ohiko maiztasunera itzuli.

Pazienteak kiroldegietan biltzen ari dira, murrizketen eta pribatizazioaren ondorioz unitateak eta planta osoak itxirik

dauden bitartean, hala nola, hotelak etab. Premiazkoa eta beharrezkoa da herritarren interes orokorrak gutxi batzuen interesen gainetik jartzea eta osasun pribatuaren baliabideak publikoaren eskura jartzea. Funtssezkoa da enpresaburu bakar batek ere ez ateratzea mozkinik testuinguru hone-tatik eta osasun publikoko eta pribatuko langileentzat soldata osoa ziurtatzea. Ez dugu zertan ordaindu krisi honen kostua.

Idatzi hau sareetan zabaltzeko deia egiten dugu. Krisi biral honen aurrean, biralizatu ditzagun gure kideak. Antolatuak indartsuagoak gara, eta ziur gure agintariek baino hobeto geldituko dugula krisi hau. Herritarrek txalotu egiten gaituzte gure lan nekaezinagatik. Eredua emateko eta erantzun kolektibo bat antolatze-ko unea da. Horregatik animatzen zaitugu manifestu hau zure zentroan eta zure kontaktuen artean zabaltzera eta zure ideiak, galderak, iritzia, bideoak, zentroan du-zuen esperientzia zabaltzera, etab. Ospitale guztietan batzordeetan antolatzea da gure helburua eta elkarren artean koordinatzea, osasun-arloko profesional gisa erakunde publikoei beharrezkoak diren neurri guztiak exijitzeko interes ekonomiko pribatuaren aurrean.

Horretarako, helbide elektroniko hau bidaltzen dizugu harremanetan jartzeko: comiteviral@gmail.com.



## Krisiaren eta erasoaren aurrean langile borroka

**Irakurri eta sinatu Ezkerreko Sindikalisten manifestua**

Langileak erasoaldi bortitzaren jo puntuan gaude koronabirusaren krisialdi erdian. Urteetan zehar gure esplotaziotik irabazi ikaragarriak atera dituzten enpresariak eta Madrilgo, EAEko zein Nafarroako egungo gobernuek, orain ere krisia langileok ordain dezagun eskatzen digute, geure osasuna eta bizitzak arriskatuz.

Erasoaldi hau ez da geratuko konfinamenduarekin, eta beraz ezinbestekoa dugu borroka sindikalean ere aurrerapauso ir-moa ematea. Ezkerreko Sindikalistak, sin-

dikatu ezberdinetan afiliaturiko langileek osatzen dugu, Ezker Iraultzaileko marxistek bultzatua. Itunen, atzera egiteen eta desmobilizazioaren sindikalismoa errefu-

satzen dugu, eta langile klasearen fronte bateratuaren alde borrokatzen dugu, sindikalismo borrokalaria eta iraultzailea defendatuz. Borroka dezagun elkaturik!

**EZKERREKO SINDIKALISTAK**



► [www.ezkeriraultzailea.net](http://www.ezkeriraultzailea.net)

• Egoera kritikoa egoitza geriatrikoetan. Gertatzen ari den sarraskia saihestu daiteke! Adinekoen egoitzen nazionalizazioa langileon kontrolpean kudeatzeko!

• Ordezkarri sindikalentzako eta langileentzako ekintza-gida aurkeztu dugu koronabirusaren krisiaren aurrean. Gure osasuna, eta gure familiena, enpresarien irabazi ekonomikoak baino garrantzitsuagoak dira!

• EAJk eta patronalak langile klasearen aurkako erasoaldiari ekin diote koronabirusaren aitzakiapean





# Ezin ditugu azterketak eta selektibitatea onartu

# Hezkuntza publikoaren

# erreskate plana behar dugu!



Apirilaren 15ean Hezkuntza Ministerioak, Autonomi Erkidegoekin bilera egin ostean, ikasturtea amaitzeko hartuko diren neurriak iragarri zituen.

Lehenik eta behin, Ministerioak uko egiten dio hain begi bistan dagoen errealtatea onartzeari: ikasturtea amaitu da. Ekai-nean amaitzearekin tematu dira eta ordura arte internet sareko tresnak erabiliko direla berresten dute —bitarteko gutxien dituzten familien zati handi bat bazterrean uzten dutena— ebaluazioa baldintza berdinetan eman ez diren edukien baitan egiteko.

Gobernuaren erabakitik ondorioztatu daiteke uko egiten diola urteetan jasan dugun murrizketa politika amaitzeari. Ez dute planteatu talka-plan ekonomikorik hezkuntza publikoa erreskatatzeko. Ez dago inolako neurririk behar ditugun bitartekoak bermatzeko eta igarotakoa ahalik eta baldintzarik onenetan berreskuratzeke. Hezkuntza sisteman geroz eta klase arrakala handiagoa dagoela erakusten duen errealtate honen aurrean ez ikusiarrena egitea, azken batean, hezkuntza publikoa larrialdira eramanez duen ereduarekin bere horretan jarraitzea esan nahi du.

Ikasleok sortu dugun presioak eta egoera benetan jasangaitza den ebidentziak Ministerioa lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta batxilergoko lehen urtean mailaz igotzearen alde egitera behartu du. Baina uko egin diote selektibitateko probak bertan behera uzteari, unibertsitate-ikasketak egiteko mozketak notak ezabatzeari eta batxilergoko batez beste-koarekin sarrera bermatzeari. Zergatik tematzten dira hainbeste gu froga horietatik pasazten? Selektibitatea langile familietako milioika ikasleren bazterketa da. Unibertsitate publikoan nahikoa plaza balezko ez litzateke inolako frogarik behar, baina gobernuek ez dute hori esaten. Selektibitatearen benetako arrazoia Unibertsitate publikoaren inbertsio falta da.

Ikasle Sindikatuak aldarrikatu dugu Ministerioak ikasle guztiak ikasturtez pasatzeko zutela bermatu behar zuela, Sekoa edo nota handiagoa zutenak lehen bi ebaluazioen batz besteko nota mantendu behar zutela, eta ezin daitekeela hirugarren hiru-hilekoko edukien azterketarik egin, ez baikara hori oinarritzeko baldintzetan ematen ari.

**EAJren hezkuntza sailaren lehentasuna ez da osasuna ezta heziketa ere, azterketak eta bazterketa baizik**

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburu den Cristina Uriarte, berriz tematu da klase presentzialetara itzultzearekin, azterketak egin behar direlako, lehenik eta behin 2. Batxilergoan eta DBH 4n. Bere erretrik osasun kriterioak kontutan hartuko dituela dio, hain zuzen ere enpresa irabaziak lehenesteko patronalak eta Urkulluk dioten bezala. Baina errealtatea guztiz kontrakoa da. Hezkuntzan, EAJren lehentasuna konfinamenduan irakasleek ikastetxeak zabalik mantentzea izan da, eta orain klaseak ahalik eta lasterren hasia irakasle ebaluaketetatik pasatzeko, batez ere titulua jokoan dutenak. Hori egiteko baldintzak bermatzea eta jasaten ari garen errealtatea bost axola zaio.

Ministerioak esan du errepikatzea “salbuezpenekoa” izango dela. EAJtik Cristina Uriartek eta hezkuntza sailak berretsi dute berriz, Euskadin ez dela errepikatuko ikasturtea koronabirusaren erruz, baina ez dela “gaingintu orokorra” emango (manipulatzeko eskuin guztia erabiltzen ari den esamoldea), ezta mailaz igotzea ere eta klastroak erabaki beharko duela nork errepikatzen duen. Erabaki horri eusteko, eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela diote. Beste arloetan bezala, hezkuntzan eskuineko politikak aplikatzeko era-

biltzen du eskumena EAJk, pribatizazio politikak eginez eta langile klaseko ikasleak baztertuz.

Aurrekaririk gabeko egoera bizi dugu, heriotzak dozenaka mila direnean, gure gurasoak ERTE, kaleratze eta langabeziaren biktima direnean... Ez dago inolako justifikaziorik, baldintza hauetan, ikasle bakar batek ere ikasturtea errepikatu dezan. Ezin daiteke onartu hirugarren ebaluaketako azterketak egitera behartzea, egoera honen estres maila ikaragarriari gehituz eman ez diren edukien frogak sortuko dutena.

**Badago dirua: Hezkuntza publikoa erreskatatzeko plan baten alde!**

Ez dagoela dirurik esaten digute, baina PSOE-UPren Gobernuak aurrekontu publikotik 100.000 milioi oparitu dizkie Ibex 35ari eta banku handiei, eta 15.000 mi-

lioio baino gehiago itunpeko irakaskuntza pribatuari, patronalaren irabaziak gizen-tzen jarraitzeko. Aldiz, behar sozialetara apur eskasak bideratzen dira eta ez dira hezkuntza murrizketak ezabatzen. Benetan lotsagarria da.

Hezkuntza publikoa defendatzeko ez bada inbertsio masibo bat egiten, familia xumeetako ikasleok garesti ordainduko dugu krisi hau. Mailaz pasa arren ondorio latzak jasango ditugu ikasketen baldintza materialetan, eskola porrota ikaragarri haziko da gure ikastetxe eta auzoetan. 2008tik hezkuntza publikoaren eta pribatu kontzertatuaren artean ikaragarri larritu den klase segregazioa are gehiago handituko da hemendik aurrera. Ikastetxe publikoetan gelak eta zentroak ixten jarraituko da, hezkuntzaren negozioaren jabe diren pribatu kontzertatuaren patronalen mesederako eta are harresi handiagoa altxatuko dute unibertsitatean zein lanbide heziketa publikoan sartzea ezinezko eginez.

Noski, eskuinari berdin dio gure etorkizunak, eta horrela erakutsi du denbora honetan EAJren hezkuntza sailburuak. Horientzat langile klaseko gazteak baldintza prekarioenetan esplotatzeko lehen gaia bakarrik gara, soldata baxuenekin eta beti ordezkari gaitzakete. Baina guk ezin dugu egoera hori onartu.

Horregatik Ikasle Sindikatutik berriro exijitzen diegu PSOE-Unidas Podemosen gobernuei zein Gasteizko eta Iruñeako Jaurlaritzei: hezkuntza publikora bideraturiko dirua handitu behar da eta behingoz amaitu behar da hezkuntza maila guztietako murrizketekin. Beken aurrekontua nabarmen handitu behar da eta irakaskuntzaren erabateko doakotasuna bermatu, haur-hezkuntzatik unibertsitatearaino. Gelako ikasle kopurua murriztu eta milaka irakasle kontratatu behar dira. Selektibitatea kendu behar da, eta irakaskuntza pribatuaren finantzaketa publikoari eta Eliza Katolikoak gozatzen dituen pribilegioei amaiera eman behar die. Ez ditugu diskurtso politak eta iragarkietako prentsaurrekoak nahi, aldaketa erradikal bat behar dugu langile familien eta gaztearen alde.



WEB orri berria:  
**www.ezkeriraultzailea.net**



# SOZIALISMOA da aukera bakarra

Covid-19aren pandemia modu gordinenean erakusten ari da sistema horren benetako aurpegia. Mundu osoan milioika pertsona babesik gabe daude koronabirusaren hedapenaren aurrean, gobernuen politika kapitalistek osasun-sistemetan eta gizarte-zerbitzuetan egin duten sarraskia dela eta. Finantza erakunde handien diktadurak gupidarik gabe gobernatzen du mundua, ondorio benetan lazgarriak utziz. Osasun-krisiari langile klasearen bizkar gainean ezarri nahi duten hondamendi ekonomikoa gehitu behar zaio, Gobernuak enpresarien irabaziak babesteko milioiakako erreskate paketeak onartzen dituzten bitartean.

Klase agintariak errezeta bakarra du krisi ekonomikoa honetatik ateratzeko. Gerra deklaratu digute langile klaseari. Gaur inoiz baino gehiago eskatzen zaigu gure bizitzak eta enpleguak sakrifika ditzagun kapitalaren irabazien aldreare aurrean.

Nahiz eta egun gizarteak inoizko baliabide material, teknologiko eta zientifiko handienak eduki, horiek pobrezia, langabezia, miseria eta gosea ezabatzeko erabili beharrean, errealitatea justu kontrakoa da. Esperientziak erakusten digu ezinezkoa dela kapitalismo berri eta gizatiarrago bat sortzea eta hori lortzeko saiakera oro porrotik handienera kondenatuta dagoela.

Modu bakarra dago amildegira garamatzan basakeria horri aurre egiteko: iraultza

sozialistaren alde borrokatuko duen alternatiba indarrez altxatzea, finantza botereek eta monopolio handiek kontzentratzen duten aberastasun guztia desjabetzea, eta langile klasearen kontrol demokratikoaren baitan sozializatzea. Ekonomia planifikatu eta sozialista gai litzake baliabide nahikoekin aurre egiteko osasun-hondamendiari, eta gizakion beharrak asetzeko baldintza duinak bermatuz denei, datozen belaunaldiari eta baita gure ekosistemari ere. Mundu berri baten eraikuntzari ekiteko ordua da. Ez dugu kapitalaren onurarako beldurturik jartzaturik eta alienaturik bizi nahi.

Horretarako beharrezkoa da langile mugimenduan sustraiak dituen alderdi iraultzaile bat eraikitzea, gazteriaren artean, ideia horiek fronte guztietan defendatuko dituen. Horixe da Ezker Iraultzaileak egiten ari garena eta azken 14 urteetan etenik gabe argitaratu ditugun Euskal Herri Sozialistaren orrien bidez defendatu duguna. Une honetan, pandemiak eragindako zailtasun guztien aurrean, Euskal Herri Sozialistaren bertsio digitala mantentzen dugu.

Ezker Iraultzailea bezalako alderdi borrokalari bat eraikitzeak konpromiso militantea, sakrifizioa eta ahalegina eskatzen du. Oso ondo dakigu gure independentzia politikoa bermatu ahal izango dugula soi-

lik gure independentzia ekonomikoa bermatzen badugu.

Badakigu krisiak gogor kolpatzen duela gure klasea, baina erakunde iraultzaile batek ezinbestean gure klasearen sostengu kontziente eta militanteari eutsi behar dio. Kapitalismoaren historiako krisirik handiena izango denaren testuinguruan, langile klasearen aurkako erasoaldi basati batean, babes hori inoiz baino beharrezkoagoa da.

Horregatik, dei egiten dizuegu basakeria kapitalista honi amaiera emateko beharra sentitzen eta partekatzen duzuen guztioi, zuen babes ekonomikoa ematera eta Ezker Iraultzailean afiliatzera.

Antolatzeko eta borrokarako garaia da!

**Ekarpena diru sarrera batekin egin daiteke gure kontuan: ES05 3035 0156 83 1561023721 (Laboral Kutxa, Euskal Herria Sozialista) edo bizum bidez 629 724 830 zenbakian, eta afiliatu webgunearen bidez edo gure telefonoetara deituz.**

Batu zaitez  
**EZKER**  
IRAUTZAILERA